

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

“Sanrokeak 2020” jaietako XII. Umeen kartel lehiaketa oinarriak

“Sanrokeak 2020” jaietako XII. Umeen kartel lehiaketa egiteko oinarri hauek Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu ditu 2020ko maiatzaren 29an.

COVID-19aren ondoriozko osasun-alarma dela eta, Laudio Udalak bertan behera utzi behar izan ditu 2020ko sanrokeen ohiko ospakizunak.

Hala ere, udan eta udazkenean jarduera kulturalak, jaiak eta aisialdikoak izan nahi ditugu udalerrian, gogoan ditugun urteroko sanrokeak gogoan izateko helburuaz. Jaiak gure kulturaren parte dira, gure identitatearen zati, eta horrexegatik nahi dugu aurten ere audioar guztiok ideia horren inguruan elkartzea eta jai giroan bustitzea udal ekitaldi guztiak. Jaien egun esanguratsuenetan ekitaldi txikiak egingo dira, bizi dugun egoerari moldatuak.

Hori dela eta, udalak kartel lehiaketa deitu du, gure jaien sua bizirik edukitzeko eta hain ezberdinak izango diren jai hauen ikur gisa erabiltzeko.

Lehiaketan parte hartu ahalko du 6 eta 14 urte bitarteko edozein umek, baldin eta Laudioko ikastetxeren batean matrikulatua badago edota Laudio udalerrian erroldatua badago.

Egile bakoitzak nahi beste kartel aurkeztu ahalko du (lelo desberdinekin), betiere, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak badira eta ez badute saririk jaso lehenago. Teknika libre izango da.

Ez da onartuko irudi edota mezu sexista, xenofobo, arrazistak eta antzekoak dauzkan kartelik.

Laudio Udalaren webgunean eskuragarri ipiniko den formularioa beteta aurkeztuko dira kartelak (www.laudio.eus). Nolanahi ere, elementu hauek eduki beharko ditu:

Aurkeztutako lanaren leloa.

Irudi fitxategia.

Lana aurkeztu duen pertsonaren identifikazio eta kontaktu datuak (datu horiek Laudio Udaleko idazkari nagusiak baino ez ditu ezagutuko, eta ezin izango ditu jakitera eman lehiaketaren emaitza ebatzi arte).

i. Izen-abizenak.

ii. NAN/AIZ.

iii. Jaiotze-data.

iv. Helbide elektronikoa.

v. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia.

vi. Egilea ez den beste pertsona baten izen-abizenak, adingabeak baitira egilea.

Markatzea oinarri hauetan zehazten diren betekizun guztiak betetzen direla adierazteko laukitxoak.

Kartelaren irudia daukan fitxategi batean aurkeztuko dira lanak, JPG formatuan (Neurriak: 820 x 1171 pixel. Bereizmena: 72 pixel hazbeteko. Gehienezko pisua: 2 MB). Ezin izango dira sinatu, eta ezin izango dute eduki aurkeztu duen pertsonaren identitatea ezagutzeko aukera ematen duen elementurik.

Irudian, kartela agertu beharko da A4 formatuan (bertikalean).

Hauek dira kartelean nahitaez agertu behar diren testuak:

SANROKEAK 2020 - LAUDIO

Ekainaren 21a arte parte hartu ahalko da lehiaketan, egun hori barne.

Aurkezten diren obrak udalaren jabetza izango dira, udalak egokitzen jotzen duen erabilera eman ahalko die eta nahi duen lekuan eta unean ipini ahalko ditu.

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du esanbidez onartzen direla zehaztutako baldintza guztiak eta bete egingo direla.

Deialdi honen kariaz sor litezkeen auzi guztiak Audio Udaleko Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuaren eskumen eskusiboa dira.

Lehiaketaren oinarriak ZUIN aldizkarian, udal webgunean eta udalaren ohiko hedabideetan agertuko dira.

Sari bakarra emango da: 200,00 euroko balioa duen eskola-materialen sorta bat, udalerriko saltokietan erositakoa.

Irabazlearen nortasuna ZUIN aldizkarian, udal webgunean eta udalaren ohiko hedabideetan argitaratuko da, eta Audio Udalaren Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzutik dei egingo zaio irabazleari saria jasotzera joan dadin.

Audio Udalak izendatuko du epaimahai teknikoa, eta hau izango da osaera:

Mahaiburua: Epaimahai teknikoaren buru izango da Audio Udaleko Jaien zinegotzi delegatua, eta, berdinketa egotekotan, kalitatezko botoa emateko aukera izango du.

Epaimahaikideak: Kide hauek boto bana izango dute:

— Artearen, pinturaren, diseinu grafikoaren edota argazkigintzaren munduarekin erlazionatutako bi audioar.

— Audio Udalaren Hizkuntza Normalizazio eta Identitate Zerbitzuko teknikaria.

— Audio Udalaren Berdintasun Zerbitzuko teknikaria.

Idazkaritza: Kultura, Kirol eta Jai Arloko arduradunak idazkari lanak egingo ditu, hitza izanda, baina bozkatzeko aukera barik.

Aukeratzeko prozedurak bi fase izango ditu:

1. fasea: Epaimahai teknikoak bigarren fasera pasako diren lanak aukeratuak ditu.

2. fasea: "Botoen" fasea izeneko honetan, gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

— Epaimahai teknikoaren bozkak: 50 puntu.

— Herritarren botoek 50 puntu balioko dute (webgunearen bidez nahiz horretarako boto-papera erabiliz bozkatu ahalko da).

Epaimahai teknikoak hautatuko ditu bigarren fasera igaroko diren lanak, kalitate eta originaltasun irizpideak aplikatuta eta indarrean dagoen legedia errespetatzen dela zainduta.

Aukeraketa sistema "lanez lan" bozkatzea izango da, bakoitzak hurrengo fasera igaro behar duen erantzunda. Bigarren fasera igaro ahal izateko, aurkeztutako obra bakoitzak gutxienez epaimahaikideen ehuneko 60aren boto positiboak jaso beharko ditu.

Epaimahaiak ez badu lanik aukeratzeko, lehiaketa hutsik geratuko da.

Lan bakarra aukeratzen badu, lan horixe izango da irabazlea, bigarren faseko bozketara jo beharrik gabe.

Epaimahai teknikoaren bozketa (50 puntu). Epaimahaikide bakoitzak 10 puntu izango ditu, egoki irizten dion moduan banatzeko aukeratutako lanen artean. Epaimahaiak hartutako erabakia horrexetarako idatzitako aktan jasoko da, non lan bakoitzak lortu dituen puntuak azalduko diren.

Herritarren bozketa (50 puntu). Udal webgunearen bidez baino ezingo da bozkatu.

Bigarren fasera igarotzen diren lanak udal webgunean ikusgai ipiniko dira gutxienez 7 egun naturaleko epean, eta udal webgunean bertan eskuragarri egongo den formularioa erabilita bozkatu ahalko da. Laudioko udaletxean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, ordenagailu bat ipiniko da euren gailu pertsonaletatik udal webgunea atzitu ezin duten pertsonak obrak kontsultatu eta euren gustukoenaren alde bozkatu ahal izan dezaten.

Sistema horren bitartez, dute udalerrian erroldatuak dauden eta NAN duten pertsonak baino ezingo dute bozkatu, betiere, formularioan azalduko diren baldintzen arabera.

Behin bozketa prozesua bukatuta, epaimahai teknikoaren idazkariak botoak zenbatuko ditu eta 50 puntu esleituko dizkie karteiei, kartel bakoitzak lortu dituen botoekiko proportzionalki.

Epaimahaiak hartutako erabakia horrexetarako idatzitako aktan jasoko da, non lan bakoitzak lortu dituen puntuak azalduko diren.

Bi aktak eskura dituztenean, hau da, herritarren bozketari dagokiona eta epaimahairen bozketari dagokiona, kartel bakoitzak fase bakoitzean lortu dituen puntuak batuko dira, eta irabazletzat aitortuko da puntu gehien lortu dituenak.

Berdinketarik izanez gero, epaimahai teknikoaren buruaren presidentearen kalitatezko botoak ebatziko du.

Horren guztiaren akta egingo da, zeinetan jaso egingo diren lan bakoitzak azkenean lortutako puntuak, lan irabazlearen leloa eta egilearen datuak. Orduan, kartel irabazlea publikoki iragarriko da.

Laudion, 2020ko maiatzaren 29an

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE